

## OSAKIDETZA

Mahaiaren hasieran azaldu dute Negoziazio Orokorreko Eskaintzak eguneko gaitzerrendako lehen 7 puntuak jorratzen dituela (2016-EPE, 2016ko LH, 2016ko plantilla zabaltzea/finkatzea, Aldi baterako kontratazioari buruzko hitzarmena, bitarteko lanpostuak betetzeko eskaintza telematikoa, lizentziak eta baimenak eta Lanbide Garapena) eta azkeneko hiru puntuak ez direla aintzat hartzen “eskaintza orokor” horren barnean (Urdulizen lanpostuak aldi baterako betetzeko irizpide orokorrak, Euskarako ezohiko proba, Berdintasun Plana).

- ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO “AKORDIOA”

Hasteko, Kontratazio Akordioaren zirriborroan eginiko aldaketen laburpen bat egin dute, eta argi utzi dute lortu nahi duten kontratazio “akordioa” 2014-2015 EPEan aplikatzekoa izango dela (nahiz eta puntu batzuk lehenago sartuko liratekeen indarrean, zerrendak egiteko irizpidea zerrenda berriak zabaltzerakoan indarrean dena izatea). Aurkezpenean lehengo lepotik dute burua eta zerrenden bi bertsioak planteatzen jarraitzen dute; hau da, batetik, zerrenda bakarra eta lehentasuna oposizioa gainditu dutenek izatea, eta, bestetik, bi zerrenda, batean gainditu dutenek lehentasuna izanda eta bestean, gainerakoak (hilaren 15ean 14:00etan bidalitako zirriborroa). Berrikuntza gisa, beste atal bat gehitu dute behin-behineko lanpostuetan euskara exijitzeko (plaza koderik gabeko lanpostuak), salbuespen hauekin: 1-HE eta hiru hirurteko egiaztatzen dituzten 50 urtetik gorako pertsonak eta 1-HE ez izan arren hiru hirurteko egiaztatzen dituzten 55 urtetik gorako pertsonak.

- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Lizentzia eta Baimenen “eskaintza” irakurri dute (hilaren 15ean 14:00etan bidalitako zirriborroa).

- EPE-2016

Mahaian bertan entregatu digute “eskaintza” berria. Aurkeztutako azken planteamenduarekiko alde bakarra da Barne Sustapeneko beste 121 plaza gehitu dituztela, hasieratik planteatutako Txanda Libreko 929 plazak bere horretan utzita (soilik erretiroak betetzea). Zeharka adierazi dute deialdia une batetik bestera emango dela argitara; izan ere, 2014ko deialdiaren ildo berari jarraituz argitaratuko dutela esan dute; hau da, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak hartutako “erabakiaren” bidez, aipatutako plaza kopuru horrekin, eta irekita/erabakitzeko geratuko direla zer kategoria deituko diren, eta, halaber, aukera egon daitekeela plazak balizko 2017-EPE eta beharbada 2018-EPE-etan metatzeko.

- 2016KO LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Aurkeztu duten eskaintza 2014-2015-EPEri (800 plaza) loturik doala zehaztu dute. Salbuetsi egin dituzte Fakultatiboen kategoriak eta adierazi dute aurrerago egingo dutela horien deialdia; izan ere, 2012ko Lekualdatze-Lehiaketaren demanda dela-eta auzitegiak emandako sententziaren eraginpean daude kategoria horiek. Eta jakinarazi dute datorren astean “2012ko Lekualdatze-Lehiaketako Ezohiko Deialdia” argitaratuko dela EHAAn FEM-Familia eta Pediatria kategorietarako. Azaldu dute eskainitako plazak Zerbitzu-eginkizunei, Behin-behineko esleipenei eta antzinatasun handieneko bitarteko postuei loturikoak direla.

- 2016KO PLANTILLA HANDITZEA

Aipatu dute jada eskainitako 450 plaza horiez gain (350 Urduliz + 100 aurreko urteko eskaintzatik betetzeko daudenak) beste batzuk gehitzea negoziatzen ari direla.

- BITARTEKO POSTUEN ESKAINTZA TELEMATIKOA.

Erizainen 293, Erizain-laguntzaileen 144, Administrari-laguntzaileen 190, Zelarien 25 eta Zerbitzu-langileen 24.

- LANBIDE-GARAPENA

Berriro egin dute txantajea sindikatuen akordioarekin jarriko litzatekeela martxan uneotan etenda dagoen Lanbide-Garapenerako 2011ko deialdia, eta 2016ko urritik hasiko liratekeela ordaintzen (atzera-eraginik gabe) eta prest leudekeela 2017an beste deialdi bat egiteko.

- URDULIZEN LANPOSTUAK BEHIN-BEHINEAN BETETZEKO IRIZPIDEAK

Adierazi dute laneratzeen hainbat etapa izango direla (EKAINA, AZAROA eta URTARRILA)

3 fase izango direla azaldu dute:

1. fasea: Uribe ESlaren Egokitzea/Behin betiko Barne Mugikortasuna (uste dute jende gutxik eskatuko duela Ospitalera mugitzea)

2. fasea: Zerbitzu-eginkizunen bidez (postuen %50, doi-doi) eta aldi baterako kontratazioen bidez (beste % 50) betetzekoa.

Era berean, jakinarazi dute postu oso jakinetarako Zerbitzu-eginkizunen deialdi espezifikoak egingo dituztela (ulertzen dugu medikuen eta batez ere kirurgiako lanpostuei buruz ari direla).

- EUSKARAKO EZOHIKO PROBA

Adierazi dute udazkenerako egiten saiatu nahi dutela. Eta, akordioa lortu ala ez, berehala itxiko dutela deialdia.

- BERDINTASUN-PLANA

Barkamena eskatu dute Zuzendaritza ez bertaratu izanagatik. Konpromisoa hartu dute Eusko Jaurlaritzan plan hori nola gauzatzen arin diren jakiteko, eta Zuzendaritza Batzorde Parekidea sortuko dutela adierazi dute.

**ELA**

- KONTRATAZIO AKORDIOA

Zeharka adierazi dute 2014-2015-EPEko azterketa egin ondoren, prest leudekeela joko-arauak aldatzeko. Azterketetan ateratako kalifikazioak jakin ondoren, partaideek zerrendetan betetzen duten posizioa aldatzeko. Eskatu dugu oposiziogileak errespetatzeko, eta oroitu dugu ELAk, afiliatuei kontsulta egin ondoren, bi lehentasun egotea defendatzen duela.

ELArekin akordioa lortzeko errespetatu beharreko oinarrizko hiru puntuak zein diren azpimarratu dugu:

### 1. GARDENTASUNA.

Puntu honi buruz, hainbat eskabide egin ditugu eta orain arte proposatutakoa ez da nahikoa. Gardentasunarekin batera, gogoratu dugu aspaldi ari garela eskatzen plantilla erreala (egiturazkoa eta funtzionala) zein den jakin nahi dugula. Guztiz gardenak izan daitezela nahi dugu, Osakidetzako langile guztiek edo Osakidetzan lana lortzeko hautagai guztiek jakin dezatela une oro zer egiten duen Administrazioak, batik bat kudeaketa txarrak saihesteko; izan ere, zerrendetan egiten diren jauziak oso garesti ateratzen zaizkigu zergadun guztioi. Urrutira gabe, gure eskuetara iritsi den azken sententziaren arabera, horrelako gorabehera batek 46.000 euroko isuna ekarri du, eta, Zerbitzuen antolaketan zer politikari jarraitzen dioten jakinda, ez da azkena izango.

### 2. 2 LEHENTASUNAK

Osakidetzaren proposamena argitzea eskatu dugu, Lehentasun bakar bat den edo bi diren. Onartezina da, batez ere, emaitzak jakin ondoren joko-arauak aldatzea.

### 3. KONTRATAZIOA DUINTZEA

Horren harira ere hainbat proposamen egin ditugu behin-behineko langileen kontratazioa duintzeko.

Muga horiek gogoratu ondoren, zirriborro baten eta bestearen artean dauden aldaketak aintzat hartuta, uste dugu kategoria guzti-guztietan parekatu behar direla egoiliar eginiko urte kopuruak, urteak balio horren bikoitzarekin biderkatuta, eta ez soilik FEM Familia, Osasun Mentaleko erizainak eta Lan Osasuneko erizainak kategorietan.

Jakin nahi dugu zer arazo daukaten kategoria guztietarako zerrendak irekita edukitzeko eta izangaiek zentro guztiak hautatzeko aukera izateko.

Ontzat jo dugu hautatutako zerbitzuen antolaketan urteko aldaketak egin ahalko direla

jasotzea, baina ez da nahikoa guk eginiko eskabidearen alderatuta, uste baitugu zerbitzu guztietan egiteko aukera egon beharko litzatekeela, bai bitarteko postuetarako (arloka hautatu ordez) bai ordezkapen/behin-behineko postuetarako.

Euskararen gaiari dagokionez, militanteekin hausnarketa egin ondoren, guk gure plataforma aurkeztu dugu jada, eta aurrez ere adierazi izan dugu Euskararekiko “akordio” orokor bat negoziatzea eskatzen dugula, ez kontratazioari loturiko akordio partzial bat. Akordio horren baitan, prest gaude negoziatzeko euskara jakitearen eskakizuna eta salbuespen-erregimen bat, baina betiere Euskarari buruzko akordio orokor baten barnean. Aurrez aipatutako oinarritzko hiru puntu horietan ez badago aurrerapausorik, ELAk ez du inolako akordiorik ontzat emango.

- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Lizentzia eta Baimenen interpretazioak berrikusteko proposamena entregatu dugu eta galdetu dugu ea argitzerik baduten Osakidetzak emandako 21 proposamenetatik zenbat ez datozen Jurisprudentziak emanak edo Funtzio Publikoaren proposamenez emanak.

- 2016KO LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Ulertu ezinik jarraitzen dugu Lekualdatze-Lehiaketaren eskaintza 2014-2015 EPEra mugatzeko/batzeko nahia. Era berean, ez dakigu zein den Osakidetzaren benetako plantilla eta, beraz, ez dakigu zenbat postu dauden betetzeko: 1, 1.000 edo 10.000. Hala ere, bete gabeko lanpostu guztiak eskaintzeko eskatu dugu, kategoria guztietarako eskaini ere. Berriro galdetu dugu, enegarrenez, noiz emango diguten plantilla eta zer arazo duten ez ekartzeko.

Jakin nahi dugu nola aplikatuko duten, zehazki, familia-medikuen eta pediatren 2012ko Lekualdatze-Lehiaketari buruz emandako sententzia, ea zuzenean aplikatuko duten eta hasierara itzultzea ekarriko duen horrek –hau da, ordudanik lanpostuak betetzeko egin diren deialdietako mugimendu guztiak aldatuko diren–, ala, aitzitik, beste era batera jokatzeko erabakitzen bada, eta horrela izango dela uste dugu, mahaian negoziatu beharko den; izan ere, erabaki horrek profesional askori eragiten die.

- 2016KO PLANTILLA HANDITZEA.

Eskueran dugun datu ofizial bakarria Legebiltzarrean emandakoa da, 2015ean behin-behineko 4.600 lanpostu zeudela; horrenbestez, iruditzen zaigu 450 plaza horiek oso urrun geratzen direla zifra horretatik.

- ESKAINTZA TELEMATIKOA

Zergatik ez dira eskaintzen bete gabe dauden lanpostu guztiak eta kategoria guztiak, postu guztiak beteta egon daitezzen.

- LANBIDE-GARAPENA

Eskatu dugu argi dezatela ea proposatutako eskaintza iazko baldintza eta zehaztapen berberen arabera den; hau da, atzera-eraginezko epeari buruzko akordiorik gabe eta sindikatuak sinatzera behartuz, aldebakarreko erabakiz kentzea erabaki zutenaren zati bat itzuliko bazaie.

Era berean, argitzeko eskatu diegu 2017ko deialdiaren proposamena iazko baldintza berberen arabera izango den, edo, aitzitik, ELAk 2015eko apirilean proposatutakoari jarraituz, deialdiaren eredu aldatzeko eztabaidarik zabalduko duten ala ez. Bide batez esanda, ELAren proposamenak ez du Osakidetzaren erantzunik jaso Sektore Mahaiari.

Ez dugu ulertzen nolatan derrigortzen dituzten sindikatuak sinatzera, txantaje modura, Lanbide-garapena itzultzeko, beraiek erabaki baitute, aldebakarrez, deialdi hori etetea.

- URDULIZEN LANPOSTUAK BEHIN-BEHINEAN BETETZEKO IRIZPIDEAK

“Akordioa” egon dadin, hauek dira gure eskabideak:

1. “Akordio” bat negoziatu behar da zentro berri GUZTIAK ireki ahal izateko.
2. Aldez aurretik adostu behar da ospitalea osatuko duen plantilla, postuz postu, kategoriaz kategoria. Bai eta lanpostu bakoitza nola eta zer epetan beteko den.

Bestalde, gogoratu dugu aurreko bileran esan zitzaiguna, Gurutzetako ospitaletik mugikortasuna egingo zela, alegia, eta galdetu dugu ea mugikortasun hori planteatutako Zerbitzu-eginkizunetara bihurtu duten.

Horren harira, Osakidetzak erantzun du 2017an baloratuko dutela Ospitaleak zenbateko

asistentzia-karga duen, eta, horren arabera, Guruzetako ospitaleko kodeak moldatuko dituztela, nahitaezko mugikortasunaren bidez, beharrezkoa balitz.

Azpimarratu dugu Osakidetzaren gaur egungo planteamenduarekin, langileen behin-behinekotasuna ia %100ekoa bihurtuko dela (Zerbitzu-Eginkizunak ALDI BATERAKOAK dira, ez behin betirakoak). Eta egonkortasun falta horrek okertu egingo duela asistentziaren kalitatea.

- EUSKARAKO EZOHIKO PROBA

Proposamena EZ DA NAHIKOA, inondik inora:

1. Baztertu egiten dira kontratu FINKOA EZ duten langileak
2. Ez du sakoneko arazoa konpontzen. Berrito gogorazi dugu zein den egiazko arazoa; alegia, ezarritako hizkuntza eredu ez dela berrito planteatzen. Aintzat harturik hainbat langilek gaitasuna duela Osakidetzako erabiltzaileekin euskaraz hitz egiteko eta ezin duela administrazioak ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu, analisiak sakonagoa izan beharko luke, arazoaren muineko arrazoiak eta egiazko konponbidea aurkitzeko. Probaren ordenan eginiko aldaketa honek ez du arazoa konponduko. Saialdi honetan asmo handirik ez duela erakutsi dute. Guk nahi duguna da zerbitzua euskaraz eman dezaketen pertsona guztiek ezaguera horiek egiaztatuta izatea.

## **OSAKIDETZA**

Adierazi dute prest leudekeela gardentasun handiagoa bultzatzeko proposamen gehiago eztabaidatzeko eta Kontratazio Akordioaren Jarraipen Batzordeek izango dituzten zereginen buruzko xehetasunak jasotzeko (gardentasunari buruz, zehaztaperen txiki hori baino ez dute aipatu).

Azaldu dute maiatza-ekainerako seguru asko mugikorrerako App bat aterako dutela, Zerrendetan dauden kide guztiek jakin dezaten uneoro zer posiziotan dauden eta izendapenak zerrendako zer puntutan egiten ari diren (ez dute zehaztu zer-nolako izendapenez ari diren).

Zerrendetan lehentasun bakarreko eredu berreskuratu nahi dute, baina jabetzen dira

2011ko Akordioa indarrean dagoela eta babesak behar duela irizpide hori aldatzeko. Nolanahi ere, gai hori sindikatuen esku geratuko da. SATSEk zerrenda bakarraren aldeko apustu garbia egiten du eta ELAk bi zerrenden aldekoa (azterketa egin ondoren saiatu direlako aldatzen eta horrela erabaki dutelako gure oinarriek); gainerako sindikatuen jarrera ez dago argi.

Berriro aipatu du datorren astean aterako dela 2012ko Lekualdatze-Lehiaketaren Ezohiko Deialdia, eta ez direla desegingo postuak betetzeko gerozko prozesu guztiak.

Jakinarazi dute ekainean jarri nahi dutela martxan 2016ko Lekualdatze-Lehiaketa (oraindik ez digute horren inguruko zirriborro bakar bat eman eta maiatza ate joka dugu).

Fakultatiboen bitarteko lanpostuen eskaintza telematikoari buruz, erantzun dute gaia aztertzen jarraitzen dutela eta datorren hilabeterako eskaintza bat ekarri ahal izango dutela mahaira.

Bat egiten dute Lekualdatze-Lehiaketa ireki eta iraunkor baten aldeko erronkarekin, baina zehaztu dute legealdi honetan ezinezkoa zaiela horri heltzea.

Lanbide-garapenari buruz, filosofia berari jarraitzeko asmoa adierazi dute, ez dutela zorretan daudenik onartuko baina ez dutela trabarik jarriko bakoitzak nahi duena erreklama dezan, eta prest daudela Garapen ereduak eztabaidatzeko, nahiz eta, beharbada, ez ELAk nahi duen sakontasunarekin izan.

## **GALDE-ESKEAK**

### **ELA**

Eskatu dugu mahai honetan negozioa dadila Santa Marina Ospitaleko Zuzendaritzak suntsitu nahi duen lanpostu bat. Lanpostua desegiteko arrazoia zein izango eta legea bete dadila eskatzea. Badakigu bilerak egiten ari direla, baina Zuzendaritza egiten ari den "txantaje" hori ezin da erabiltzen ari diren moduan erabili.

Osakidetzak onartu du baietz, langileen berrantolaketa planteatzen ari direla eta gaia mahaira ekarriko dutela.

## **OSAKIDETZA**



Antzinasun-egunen kontua argitu dute (ondorio guztietarako norberaren gaietarako egunekin parekatzen dira egun horiek), eta egiten den lanaldiaren proportzio berean har daitezkeela zehaztu dute. Antzinasun-egun bakoitza 7 ordu eta 30 minuturen parekoa da eta ez egun baten parekoa.